

Nº 28/2022 EBAZPENA, otsailaren 22koa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Arabako Osasun Mentaleko Sareko Zabalganeko Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen azaroaren 15eko 247/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Arabako Osasun Mentaleko Sareko Zabalganeko Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko urtarrilaren 5eko EHAA 5. zk. eta 2022ko urtarrilaren 15eko BOE 13. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko otsailaren 4an amaitu zen.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen 2022ko osatailaren 07ko 22/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Arabako Osasun Mentaleko Sareko Zabalganeko Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)



Osakidetza

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiok
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta
biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 22.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea
MIREN EGUZKIÑE DE MIGUEL AGUIRRE

I ERANSKINA


ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZABALGANEKO OSASUN MENTALEKO
ZENTROKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- FELIX INCHAUSTI GOMEZ

Baztertuak:

- Inor ez



II ERANSKINA

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZABALGANEKO OSASUN MENTALEKO
ZENTROKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: ALVARO IRUIN SANZ
Ordezkoa: ENRIQUE GUTIERREZ FRAILE

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: JUAN BAUTISTA LETONA ARAMBURU
Ordezkoa: ANTONIO DE BLAS DE BLAS

Bigarren batzordekidea:

Titularra: EDUARDO JOSE ELIZAGARATE ZABALA
Ordezkoa: ANA BLANCA YOLLER ELBURGO

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: RAFAEL SANCHEZ BERNAL
Ordezkoa: MARIA CRISTINA CORTAJARENA GARCIA

Laugarren batzordekidea:

Titularra: MARIA ARANZAZU FERNANDEZ RIVAS
Ordezkoa: LUIS OSA FERNANDEZ

Idazkaria:

Titularra: MARIA JOSE PUJANA URIARTE
Ordezkoa: FRANCISCO JAVIER PEDROSA RODERO

